



UNITATEA	HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK, INGURUMENA, MUGIKORTASUNA ETA TRANTSIZIO ENERGETIKOA
XEDEA	TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA «11. SAN ESTEBAN» HIRIGINTZA ESPARRUKO ALDAKETA PUNTUALA
ESPARRUA	11. SAN ESTEBAN

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

LEHENA.- 2020ko maiatzaren 14 eta 19 bitartean, SABAI ARKITEKTOAK SLP enpresak, Agustin Errea Oyarzabalek ordezkatuta, udalean Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntualari buruzko dokumentazioa aurkeztu zuela.

BIGARRENA.- COVID-19 dela eta, maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuko 9. artikuluan xedatutakoari jarraituz, prozedura eten egin zela.

HIRUGARRENA.- 2021eko abenduaren 24an, SABAI ARKITEKTOAK SLP enpresak, Agustin Errea Oyarzabalek ordezkatuta, udalean Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntualari buruzko alternatibaren azterketa aurkeztu zuela.

LAUGARRENA.- 2022ko urriaren 14an, hirigintza departamenduko buruak txosten teknikoa (JM22_047) egin zuela Lurralde Batzorde Informatiboari honako irizpen-proposamena eginez:

«**LEHENA.-** Tolosako HAPOko 11. San Esteban Esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hastea.

BIGARRENA.- Aldaketa puntualaren prozesuko herritarrek parte hartzeko programa onartzea. (...)

HIRUGARRENA.- GAO-n argitaratzea Tolosako HAPOko 11. San Esteban Hirigintza Esparruko Aldaketa puntualaren Herritarren Partaidetzarako Programa, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

LAUGARRENA.- Informazioa eskatzea babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei, dauden arriskuei buruz eta udalerraren antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruz».



BOSGARRENA.- 2022ko urriaren 20an, hirigintza departamenduko buruak txostena (JM22_049) egin zuela Lurralde Batzorde Informatiboak onartutako irizpena jasoz.

SEIGARRENA.- Udalbatzak, 2022ko urriaren 27an, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, erabakia hartu zuela Tolosako HAPOko «11 San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hasteko eta onartu egin zuela herritarrek parte-hartzeko programa.

ZAZPIGARRENA.- 2022ko azaroaren 28an, hartutako erabakia GAOon (225 zk.) argitaratu zela eta 2022ko abenduaren 2an, berriz, akats zuzenketa GAOon (229 zk.) argitaratu zela.

ZORTZIGARRENA.- Hartutako erabakia 2022ko azaroaren 28tik 2023ko urtarrilaren 30era udaleko web guneko iragarki taulan iragarri zela.

BEDERATZIGARRENA.- Honako baimen sektorialak eskatu eta jaso direla:

Administrazioa	Txostena jasotako data
Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	2022-12-01
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultur-Ondarearen Zuzendaritza	2022-12-15
Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendaritza	2022-12-16
Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF)	2022-12-22
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetza	2022-12-28
Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturretako Departamentua	2023-01-17 (emaila)
Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua	2023-03-16 (emaila)

HAMARGARRENA.- Informazio-aldian, 2022ko abenduaren 7an, J.A.R.T. herritarrak informazio-eskaera eskatu zuela.

HAMAIKAGARRENA.- 2024ko urtarrilaren 5ean, SABAI ARKITEKTOAK SLP enpresak, Agustin Errea Oyarzabalek ordezkaturik, udalean Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntualari buruzko dokumentazioa, irizpide eta helburu orokorren aurrerapen dokumentua, aurkeztu zuela.

HAMABIGARRENA.- 2024ko otsailaren 21ean, HIRI.DUNAK ESTUDIOA SL PROFESIONAL enpresak, Amaia Albeniz Goicoecheak ordezkaturik, udalean Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntualari lotutako parte-hartzeko lehenengo eta bigarren faseari buruzko dokumentazioa aurkeztu zuela; euskaraz zein gaztelaniaz.



HAMAIRUGARRENA.- 2024ko martxoaren 15ean, ARAUDI SLP enpresak, Miren Nekane Azarola Martinezek ordezkatuta, udalean Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntualari buruzko hasierako dokumentu estrategikoa aurkeztu zuela.

HAMALAU GARRENA.- 2024ko maiatzaren 8an, ESKUAHALDUNAK ESKULTOREEN ELKARTEAK, Guillermo Olmo Rodriguezek ordezkatuta, udalean Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntualari lotuta, eskatu zuela San Estebango Hirigintza Garapenerako Planean Obra Brigadaren egungo eraikina mantentzea.

HAMABOS GARRENA.- 2024ko urriaren 8an, hirigintza departamenduko buruak txosten teknikoa (*JM24_047*) egin duela udalean aurkeztutako hasierako dokumentu estrategikoari buruz zein aurrera eraman den parte hartze prozesuaren garapenari buruz.

HAMASEI GARRENA.- 2024ko urriaren 15ean, hirigintza departamenduko tekniko juridikoak txosten juridikoa (*MAU24021*) egin duela udalean aurkeztutako hasierako dokumentu estrategikoari buruz zein aurrera eraman den parte hartze prozesuaren garapenari buruz.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Hirigintza Buruak 2024ko urriaren 8an egindako txosten teknikoan, besteak beste, jasotakoa:

«Dokumentuaren edukia:

Irizpide eta helburu orokorren Aurrerapen dokumentua eta Hasierako dokumentu estrategikoa. Horretaz gain orain arte gauzaturako herritarren parte hartzeko 2 faseen memoriak ere espedientean daude.

- **Irizpide eta helburu orokorren Aurrerapen dokumentuak** honako atalak ditu:

Memoria:

- Hitzaurrea
- Sarrera
- Informazio eta Diagnostikoaren laburpena
- Herritarren parte hartzea
- Lurralde-antolamenduaren eredurako alternatiben azterketa
- Antolamendua, irizpideak, helburuak eta soluzio orokorrak

Planoak:

- Multzoaren planoak. Gaur egungo egoera
- Multzoaren planoak. III. Tailerreko alternatibak (1, 2, 3, 4A eta



4B)

- Multzoaren planoa. Deboluzio tailerreko alternatibak
- Zonifikazio xehatuaren aukerak

• **Hasierako dokumentu estrategikoa.**

- 1.- Lantaldea
 - 2.- Sarrera
 - 3.- Aurrekariak
 - 4.- HAPOnen aldaketaren helburuak eta antolamendu-irizpideak
 - 5.- San Estebango HAPOnen proposamenaren deskribapena eta alternatiben azterketa
 - 6.- HAPOnen aldaketaren aurreikusitako garapena
 - 7.- Ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak
 - 8.- Ingurumen- eta paisaia-unitate homogeenak
 - 9.- Proposatutako plangintzaren ingurumen-inpaktu potentzialak
 - 10.- Sektore- eta lurralde-planen gaineko gorabeherak konkurrenteak
 - 11.- Publiko interesdunaren proposamena
1. eranskina.- kartografia
 2. eranskina.- ingurumen-ebaluazio estrategikoa eskatzeko formularioa (211/2012 dekretuaren v. eranskina)

10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenaren II.A eta II.B eranskinen arabera HAPOnen aldaketa hau Ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozeduraren mende dago.

Bestalde, Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 87. Artikuluak honakoa dio hirigintzako plangintzaren aurrerakinei buruz:

<<87. artikulua.– Hirigintzako plangintzaren aurrerakinak.

1.– Plan orokorrak egiteko eskumena duten herri-administrazioek aurrerakinak egingo dituzte, ezarri nahi duten antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak zehazteko eta plan orokorra lehendabizikoz egiten denean edo indarrean dagoen bat guztiz edo partzialki berrikusi behar denean orientabide izateko. Aldaketa-kasuetan, aukerakoa izango da aurrerakina egitea.

2.– Aurreko paragrafoan aipatzen den aurrerakina onartzeak barruko administrazio-eragina izango du, kasuan kasuko hirigintza-planaren idazketari begirakoa.

3.– Aurrerakinean, ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa egiten duen azterketa ere jasoko da. Arauz ezarritako edukia izango du.>>

Besteak beste, Aurrerakinako alternatiben azterketa eta irizpide eta helburu orokorrak jasotzen dira memorian eta planoetan.

Memoriako V. atalean Antolamendua, irizpideak, helburuak eta soluzio orokorrak jasotzen dira ikuspegi eta arlo desberdinetatik begiratuta. Eta V.17 azpiatalean antolamendurako irizpide eta helburu orokorren aurrerapena jasotzen da, proposamen

ESKU0c4e4792-2f3c-46d0-9e19-1456cf9a8cb0



grafikoetan ere jasoko dena.

Laburbilduz, hauek dira **irizpide eta helburu orokor** horiek:

- Oro har, San Esteban auzoko **egungo bizitegi-egitura finkatzea** proposatzen da, antolamendurekin bat ez datozen eraikinak ordeztuz, auzoaren barruan eta hiri-fatxadaren aurrealdean espazio libreak eta zuzkidurak lortzearekin batera eta San Juan kaleko espazio publikoa ordezkatzuz.
- **Anbulatorioaren eta Ferialaren jarraipen gisa proposatutako hirugarren sektoreko ekipamendu, zuzkidura eta erabilera berrien kokapen perimetrala** proposatzen da, trenbideri erantsita eta industrialdearen iparraldeko fatxadan, alde batetik, tren-jarduerarekin "koltxoi akustikoaren" efektua lortzeko, eta, bestetik, gainerako hiri-bilbearekiko lotura eta irisgarritasun azkarra lortzeko, sistema orokorrak diren aldetik.
- **San Juan kaleko bide-sarearen egungo trazadura aldatzea** proposatzen da, bateriako aparkaleku publikoak (140 plaza), lurpeko garaje pribatuetarako sarbideak eta disuasio-aparkalekuak (300 plazatik gorakoa) eraikitzeko sarbide zuzena ezarri ahal izateko.
- **Bizitegi-antolamendua, gutxi gorabehera 45.000 m2-ko hirigintza-erakigarritasunekoa (450 etxebizitza), hego-ekialdetik ipar-mendebaldera doan ardatzean kokatzen da, oinezkoentzako bulebarraren inguruan.** Bloke isolatuak proposatu dira, profil desberdinekoak, eguzkiztapena eta aurrez aurre ez dauden ikuspegiak izan ditzaten. Oinezkoentzako bulebarrak Zuberoako blokeen arteko egungo plazatxoaren errekaren beste aldeko muturrean aurreikusitako ekipamendu soziokulturalarekin lotzen du aukera batean. Eta bestean, ekipamendua ardatz horren erdialdean kokatzea proposatzen da.
Antolamenduak Ttorre errekaren inguruko baserri-multzoa eta San Esteban 24. zenbakiko eraikin isolatua (Hirualdeta) integratu nahi ditu.


Bestalde, espazioaren antolaera horri esker, **espazio libre hauek egituratzen** dira:

- Bi antolamendu aukeretan **bi plaza publiko** proposatzen dira. Bata, Zuberoa eraikin multzoaren eta Hirualdeta eraikinaren inguruan; eta, bestea, ekipamendu publikoaren inguruan.
- **Espazio libreak eta berdeguneak** ere, ekipamenduen antzera, **modu jarraian proposatzen dira.** Gaur egungo erreka balioan jartzen da eta berdegune lineal bat proposatzen da Ttorre errekatik Elosegi parkeraino.
- **Merkataritza-erabilerak eta hirugarren sektorekoak** proposatzen dira, San Juan etorbide berriaren eta sortzen den oinezkoentzako bulebarraren arteko eraikinen lehen ilararen beheko solairuetan. Bigarren ilarako eraikinetako behe solairuetan, berriz, etxebizitza erabilera proposatzen da.
- **Gaur egungo ekipamenduak handitzea eta berriak sortzea** proposatzen da: ferialekua birgaitzea, alboan aparkaleku eraikin bat eraikitzea eta ekipamendu



sozio-kultural bat auzoan kokatzea proposatzen da, bestek bestek.

Planoetan jasotzen dira herritarren partaidetza prozesuan aurkeztutako aukera guztiak (2.1., 2.2., 2.3., 2.4.A eta 2.4.B). Eta azken saioan, deboluzio tailerrean, aurkeztutako bi aukerak ere jasotzen dira (3.1, 3.2, 3.3 eta 3.4 planoetan).




Ondoren, 4.1. eta 4.2. planoetan zonifikazio xehatuaren proposamen orientagarria jasotzen da.

Beraz, aipatutako dokumentuen edukia egokia da.

BIGARRENA. - Aurrera eramandako parte hartzeko prozesuaren garapena honakoa izan da:

Prozesuaren eskema honakoa izan da:



Orain arte lehen faseko 3 saioak eta 2. Faseko deboluzio tailerra gauzatu dira. Eta Aurrerakina jendaurrean jartzearekin batera erakusketa bat antolatuko da. Inkesta batekin eta iradokizunak erraz egin ahal izateko liburu zuri batekin osatuko dena.

Orain arte gauzatu diren saioen laburpena hauxe da:

1. FASEA

- **1go SAIOA: Diagnostikoaren Aurkezpena. 2022ko Abenduaren 19an 18:30-20:30 auzo-elkartean**

Aurkezpena: Tolosako alkateak prozesuaren aurkezpena egin zuen eta DUNAK taldeak faseak eta datak aurkeztu zituen.

Diagnostikoaren aurkezpena: Sabai eta Araudi taldetik ekarritako diagnostikoaren aurkezpena egin zen, besteak beste, hauek izan ziren aipatutako gaiak:

- 1) Aurrekariaren zerrenda
- 2) 2013an egindako parte-hartze prozesuaren irizpideak
- 3) Ingurumen gaiarekin izandako lege aldaketak eta San Esteban auzoan kontuan izan behar ditugun ezaugarri baldintzatzailleak (sare urdina: ibaia eta erreka, uholdegarritasuna; sare berdea: zuhaitziak, Elozegi, landa-lurrak, berdeguneak; ondarea: baserriak, tren-sarearen eraikin bereziak, Zuberua etxe-taldea; kutsadura: zarata eta lursoruak)
- 4) Irizpide eta helburuen proposamena

Galderen txanda

Parte-hartzaileei luzatutako galdera

ERAKUSKETA: 2023ko urtarrilaren 3tik aurrera Auzo Elkartearen patioan, aterpean,



erakusketa jarri zen.

- **2. SAIOA: Lan tailerra: Etxebizitza eremua. 2023ko Urtarrilaren 9an 18:30-20:30 auzo-elkartean**

Sarrera: 1go saioaren erantzunak aurkeztu eta azalpenak eman, irizpideak gogoratu eta etxebizitza eremuaren eraikinen egoera azaldu zen.

Formazioa:

- Eguneroko bizitzarako hirigintza
- San Esteban auzoko zerbitzuak-elkarguneak-sareak
- San Esteban auzorako gomendioak

Lanerako aukeren aurkezpena

Taldekatu dinamika:

- 1) 3 aukerak baloratu
- 2) Aukera bat aukeratu eta hobetu
- 3) Etorkizuna irudikatu

Elkarbanatzea

Auzo eremua: hurrengo saiorako aukeren erakustea

- **3. SAIOA: Lan tailerra: Auzo eremua. 2023ko Urtarrilaren 16an 18:30-20:30 auzo-elkartean**

Sarrera:

- 1) Herri mailako IRIZPIDEAK:
 - Ingurumen harresi berdea eta Ttorre erreka eta Elozegi parkeko loturak
 - Ferialekua mantendu
 - Tren azpiko pasabidea handitu
 - Herri mailako aparkalekua egokitu
 - Erabilera nahasketa
 - Bideragarritasuna
 - Eraikigarritasuna: 600 etxebizitza inguru (Babestuak eta libreak)
- 2) Bertikaltasunaren eskema
- 3) Derrigorrezko Hirigintza Estandarrak
- 4) Lanerako aukeren aurkezpena
- 5) San Esteban auzoko bide zaharra (parte-hartzaile baten aurkezpena)

Taldekatu dinamika:

- 1) ERAIKI GABEA: espazio publikoa
 - adibideak
 - mugikortasuna
 - landa gunera trantsizioa eta elkarguneak
- 2) ERAIKIA
 - eraikinak mantendu ala bota
 - erabilera nahasketak



- etxebizitzak

Elkarbanatzea

2. FASEA

- **4. SAIOA: Deboluzioa. 2023ko Azaroaren 28an 18:30-20:30 auzo-elkartean**

Harrera eta aurkezpena: Tolosako Hirigintza zinegotziak aurkezpena egin du eta udalak izan dituen irizpide aldaketak labur-labur azaldu ditu.

1. Fasearen aurkezpena: DUNAK taldeak 1. fasearen emaitzen laburpena egin dute, eta besteak beste hauek izan dira aipatutakoak:

- 1. Saioaren (diagnostikoaren aurkezpena): datuen laburpena eta emaitzak.
- 2. Saioaren (lan-tailerra etxebizitza-eremua): datuen laburpena, jorratutako edukiak eta emaitzak.
- 3. Saioaren (lan-tailerra auzo-eremua): datuen laburpena, jorratutako edukiak eta emaitzak.
- 1. Fasearen ondorioak: diagrametan eta planoetan.

Proposamen teknikoak

- Egungo egoera
- Mantentzea eta birrintzea aurreikusten diren eraikinak
- Herri-mailako irizpideak
- Aurrerakineko 1 go aukera (1A eta 1B)
- Aurrerakineko 2.go aukera (2A eta 2B)
- Derrigorrezko hirigintza estandarrak
- Galderen txanda

Saio guztietan jasotako ekarpen, kezka eta iritzien laburpena jasotzen da.»

HIRUGARRENA.- Hirigintzako teknikari juridikoak 2024ko urriaren 15ean egindako txosten juridikoan, besteak beste, jasotakoa:

«

A) ZUZENBIDEZKO OINARRIAK.

I. Legedi aplikagarria honako hauek zehazten dute:

- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena
- 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duena
- 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa
- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzen dituena



- 64/2020 Dekretua, maiatzaren 19koa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (Tolosaldea).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde Kantauriarra eta Mediterraneo)
- Kantauri ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiko plan hidrologikoa (2022-2027)
- Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sarearen lurraldearen arloko plana
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzkoa
- 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza aldatzen duena
- 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintza-estandarrei buruzkoa
- 2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzen duena.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen
- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena
- 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa
- 9/2018 Legea, abenduaren 5koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aldatzen duena
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena, 2015eko otsailaren 16an zuzendua
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena
- Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana.

II. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 102. artikulua arabera berrikuspen gisa hartzen ez diren hirigintza-planen edukia berriz aztertzeko, aldatu egin beharko da.

Plan orokorrak berriaz identifikatu eta bereizi beharko ditu, bere eduki propioaren parte izan arren, plan horrek lege honetan esleituta duen lege-funtzioari ez dagozkion zehaztapenak, antolamendu xehatuko plangintzari dagozkionak baizik.

Izapideak egiteko, plan orokorraren edukiaren elementuen aldaketak kontuan



hartuko du bereizketa hori, eta dagokion antolamendu-figuraren berezko arauetara egokitu beharko dira, maila edo izaera kontuan hartuta, lege horren 58. artikuluan xedatutakoaren arabera eragindako zehaztapenak.

III. Hirigintza-planetako zehaztapenen aldaketa plan mota beraren bidez egin beharko da, eta zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura berari jarraituz. Arau honetatik salbuetsita daude:

- Plan partzialek eta bereziek plan orokorrean jasotako antolamendu xehatuan egin ditzaketen hobekuntzak eta aldaketak.
- Kasuan kasuko planak xehetasunezko azterketaren bidez berariaz egin ditzakeen hobekuntzak eta aldaketak.
- Plangintza orokorraren aldaketak, zeinetan aurrerapenaren izapidetzea hautazkoa izango baita.
- Sektorekatze-planak edo bateragarritze-planak plan orokorrean ezarritako egiturazko antolamenduan egiten duten aldaketa.

Plan orokorra egitea eta aldatzea udalari dagokio, eta zazpi mila biztanletik gorako udalerrietan, berriz, behin betiko onartzeko eskumena ere berari dagokio. Biztanle gutxiago dituzten udalerrietan, dagokion foru-aldundiak izango du behin betiko onespena emateko eskumena.

IV. Aldaketa edozein unetan egin ahal izango da. Hala ere, plan orokorraren berezko zehaztapenei edo elementuei buruzkoak direnean, ezin izango da inolako aldaketarik izapidetu epeak amaitu ondoren edo planean bertan berrikuspenerako aurreikusitako kasuak edo inguruabarrak gertatu ondoren, betiere planaren lanak hastea erabaki ez bada.

Presako edo aparteko interes publikoko arrazoiak direla-eta, hirigintza-planak lurralde-antolamenduko tresnetara egokitu behar badira, lurralde historikoko foru-organoak, bere ekimenez edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan lurralde-antolamenduaren arloko eskumena duen kontseilariak eskatuta, eta eragindako udalari entzunda, plan orokorra edo beste hirigintza-plan zehatz batzuk berrikustea erabaki ahal izango du, eta horretarako epe egokiak ezarriko dizkie udal-erakundeei, dagozkion neurriak hartzeko, aurrekontuei dagozkienak barne.

V. Udalek aldaketak izan dituzten planen bertsio osoak eta eguneratuak onartu ahal izango dituzte. Bertsio hori nahitaez onartu beharko da plan orokorrak egiturazko antolamenduan bost aldaketa izan ondoren, legez baimendutako beste plan batzuen zehaztapenetatik eratorritakoak barne.

Hirigintza-antolamenduko planen bertsio osoa eta eguneratua onartu ondoren, ale bat utzi beharko da dagokion lurralde historikoko hirigintza-plangintzaren erregistroan.

VI. Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 6. artikulua arabera, lurralde-antolamenduko eta hirigintza-antolamenduko planek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete beharko dute, ingurumen-ebaluazioaren arloan



indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.

Hala, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.B eranskinari buruzko 72.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egingo zaie II.A eranskineko plan eta programen aldaketa txikiei, II.G eranskineko aldaketa txikien definizioaren arabera.

- VII. Plangintzaren aldaketak martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan aurreikusitako prozedura berari jarraituko dio, hura onartzeko, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta edo sinplifikatua barne, dagokionaren arabera, ingurumen-ebaluazioaren araudiaren arabera (10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena).

Dokumentazio bera jendaurrean jarri beharko da, jendaurrean jartzeko gutxienerako dokumentazio gisa. Gainera, egindako aldaketa justifikatzeko memoria bat eta eragindako araudiko artikuluen testu osoa jasoko ditu, aldatutako artikuluen zatiak nabarmenduta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, plangintza orokorraren aldaketetan, aukerakoa izango da aurrerapena egitea.

- VIII. Plan orokorraren aldaketak aurrerapena egin gabe onesteko, honako izapide hauek egin beharko dira:

- a) Udalak ingurumen-ebaluazioari hasiera emateko eskabidea eta ingurumen-dokumentu estrategikoa idatzi, eta ingurumen-organora bidaliko ditu, plan orokorraren aldaketarekin batera.
- b) Ingurumen-organoak eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen kontsulten mende jarriko du espediente, iritzia eman dezaten hilabeteko epean, eskaera egiten denetik hasita, ingurumen-ebaluazioari buruzko oinarritzko araudi sektorialean aurreikusitako baldintzetan.
- c) Ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoa egingo du, bi hilabeteko epean, espediente osoa jasotzen duenetik hasita, eta, kontsulten emaitza kontuan hartuta, erabakiko du planaren aldaketak ingurumenean ondorio nabarmenak dituen edo ez.
 - 1) Ondorio nabarmenik ez badu, aldaketa hasiera batean onetsiko da, txostenak berak ezartzen dituen baldintzetan, eta dagokion izapidearekin jarraitu ahal izango da.
 - 2) Bestela, txostenak xedatuko du aldaketa ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mende jarri behar dela. Ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egingo du eta udalari jakinaraziko dio. Udal horrek dekretu honen 27. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako izapidetzearekin jarraitu beharko du.

- IX. Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8. artikulua arabera, hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzekoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskaini behar da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.

Bestalde, arau beraren 108. artikulua eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua adierazten dutenez, egiturazko hirigintza-antolamenduaren edozein figura aldatzen hasteko akordioak edo ebazpenak parte hartzeko programa bat izan beharko du, eta programa horretan ezarriko



dira herritarrek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea ahalbidetzeko behar diren helburuak, estrategikoak eta mekanismoak.

Herritarrek parte hartzeko delako programa oso-osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian; administrazio publiko sustatzailearen arabera; informazio-teknologia berrien bitartez hedatuko da, eta, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu, gutxienez:

- a. Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.
- b. Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzear aurkeztutako alternatiba posibleak.
- c. Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.

- X. Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumen propioa edo eskuordetua duten udalerrietan, nahitaez, Udal Plangintzako Aholku Batzorde bat egon beharko da, toki-organo aholku-emaila eta eztabaidatzaile gisa, hirigintza-planak eta horien aldaketak formulatu, izapidetu eta onartzeko prozedurari dagokionez gizarte-ituntzeko eginkizunak betetzeko.

Kontseiluak udalerriko plangintza orokorra egiteko ardura duten administrazioek egiten edo ezartzen dituzten azterlan, programa, jarraibide eta jarduera-ildo guztiak aztertuko ditu, plangintza hori egiten laguntzeko, eta, nolana ere, plan orokorra teknikoki idazten hasi ondoren emango du horren berri. Kontseiluak hirigintza-antolamenduko beste edozein plan edo tresnari buruzko txostena eskatu, ezagutu eta eman ahal izango du.

- XI. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

B) AZTERKETA JURIDIKOA.

Kontuan izanik Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntuala aurrerapenarekin izapidetzea erabaki dela, aintzat harturik hirigintza-plangintzaren prozedura zein ingurumen-prozedura, honako hau da espediente honetan jarraitu beharreko eta jada jarraitzen ari den prozedura:

HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURA.	INGURUMEN-PROZEDURA.
2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa.	21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
1.- Udalak aurretiazko azterlanak egin, hirigintzako informazioa bildu eta hasierako diagnostikoak eta helburuak proposatu ahal izango ditu (2/2006 Legearen 86. artikulua).	

ESKU0c4e4792-2f3c-46d0-9e19-1456cf9a8cb0



<p>Dokumentua idaztea erabaki ondoren, organo eskudunei informazioa eskatuko zaie, eta bi hilabeteko epean emango da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.1 artikulua). Hasteko erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa aurkeztuko da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108. artikulua).</p> <p>2.- Aurrerapena egitea.</p> <p>3.- Aurrerapena jendaurrean jartzea, gutxienez 2 hilabetez. Iragarkia lurralde historikoko aldizkari ofizialean, tirada handieneko egunkari batean eta bitarteko elektronikoetan argitaratzea. Mugakide diren udalei eta, hala badagokio, Arabako Administrazio Batzarrei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten. (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.3 artikulua).</p> <p>5.- Jendaurrean jartzearen eta irismen-dokumentuaren emaitzak ikusita, Udalak PO hasierako onespenerako dokumentua idazteko irizpideak eta helburuak ezarriko ditu (2/2006 Legearen 90.4 artikulua).</p> <p>6.- Hasierako onespenerako dokumentu teknikoa egitea.</p> <p>7.- Udalak hasierako onspena emango dio Plan Orokorrari.</p> <p>8.- Dokumentua jendaurrean jarriko da, erabakia aldizkarian eta egunkarian argitaratzen denetik gutxienez 45 eguneko epean. Onspena sektoreko administrazioei eta administrazio-batzarrei jakinaraziko zaie.</p> <p>9.- Plan Orokorraren behin-behineko onspena, dagozkion aldaketekin. Araban, erabakia igorriko die administrazio-batzarrei</p>	<p>2.bis.- Aldi berean, udalak hasierako dokumentu estrategikoa eta IEE arrunta hasteko eskaera egingo ditu.</p> <p>3.bis.- Eusko Jauriaritzako edo foru aldundiko ingurumen-organismoari bidaliko zaio, 7.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan. Ingurumen-organismoak hilabeteko epean kontsulta egingo die eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei.</p> <p>4.- Ingurumen-organismoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin eta jakinaraziko du, hasteko eskaera jaso eta gehienez ere 3 hilabeteko epean, eta udalera bidaliko du kontsultei emandako erantzunekin batera (Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/13 Legearen 19. artikulua). Ingurumen-organismoaren eta udalaren egoitza elektronikoan argitaratzen da.</p> <p>6.bis.- Aldi berean, ingurumen-azterketa estrategikoa idatziko da, irismen-dokumentua kontuan hartuta. (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 20. artikulua).</p> <p>8.bis.- Udalak 45 egun balioduneko epean bidaliko die espedientea eragindako administrazio publikoei, eragindako pertsonen, aurrez kontsultatutako pertsona interesdunen eta egoitza elektronikoari kontsultak egiteko. Informazio publikoak ingurumen-azterketa estrategikoaren laburpen ez-tekniko bat izango du (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 21. artikulua). Hala badagokio, ingurumen-azterketa estrategikoa aldatzea, kontsulten eta alegazioen arabera.</p>
--	---



<p>(2/2006 Legearen 90.6 artikulua). 10.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena (2/2006 Legearen 91.2 artikulua). Epea: 3 hilabete.</p> <p>11.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena udalari bidaliko zaio.</p> <p>12.- 7.000 biztanletik beherako udalerrietan, espediente osoa udalak bidaliko dio foru-aldundiari, behin betiko onar dezan.</p>	<p>10.bis.- Ingurumen-organoak espedientearen azterketa teknikoa egitea eta bi hilabeteko epean ingurumen-adierazpen estrategikoa egitea (ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 24. eta 25. artikulua). EHAAn eta ingurumen-organoaren egoitza elektronikoan argitaratzea.</p> <p>11. bis- Ingurumen-adierazpen estrategikoa udalari bidaliko zaio.</p>
<p>13.- Udalak edo, hala badagokio, foru-aldundiak behin betiko onartzea, eta ALHAOn argitaratzea hirigintza-arauekin batera (2/2006 Legearen 89.5 eta 91.4 artikulua) ALHAOn argitaratzea eta egoitza elektronikoa: ingurumen-alderdiak nola txertatu diren (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 26. art.) (Dekretuaren 7. art.).</p>	

Espedientea une honetan 2 eta 3 puntuen artean dago, beraz, prozeduran hurrengo urratsa da Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntualaren aurrerapen-dokumentua eta hasierako dokumentu estrategikoa onartzea, horiek jendaurrean jartzea iradokizunak zein alternatibak aurkeztu ahal izateko eta, udal mugakideetara bidaltzea dokumentuak ezagutu eta proposatutako antolamenduaren oinarritzko alderdiei buruzko txostena egin dezaten.

Horrekin batera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera aurkeztu behar zaio Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari, hasierako dokumentu estrategikoarekin eta planaren aurrerapen-dokumentuarekin batera.»

LAUGARRENA.- Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeriak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola obra-lizentziak emateko eskumena.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- TOLOSAKO HAPOko «11. SAN ESTEBAN» HIRIGINTZA ESPARRUKO ALDAKETA PUNTUALAREN AURRERAPEN-DOKUMENTUA ETA HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA JENDAUURREAN JARTZEKO ERABAKIA HARTZEA.

BIGARRENA.- Adierazitako dokumentu horiek jendaurrean jartzea bi hilabetez, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko, eta honen berri ematea GAOn zein Berria, Diario Vasco eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan. Halaber, interesdunen eskura jartzea Tolosako Udaleko iragarki-oholean eta egoitza elektronikoan.



TOLOSAKO
UDALA

Esp.zkia.: 2020H1010002

HIRUGARRENA.- Aurrerapena udal mugakideetara (hau da, Alkiza, Hernialde, Anoeta, Irura, Billabona, Ibarra, Leaburu, Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Legorreta eta Albiztur) bidaltzea, ezagutu dezaten eta proposatutako antolamenduaren oinarritzko alderdiei buruz txostena egin dezaten.

LAUGARRENA.- Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera aurkeztea Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari, hasierako dokumentu estrategikoarekin eta planaren aurrerapen-dokumentuarekin batera.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, izapide-egintza bat denez, ezin baita haren aurka errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoa.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Begoña Garmendia Vazquez



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2020H1010002-Dekretu orokorra/Dekretu orokorra ()